



MIPTV - Cannes (2010eko apirilaren 12tik 16ra)

TF1 frantziar kate publikoak 3Koma-ren "Urteko Egutegia" saioa erosi du, han eskaintzeko

Profesionalek dokumental historikoak eta formatuak eskatu dituzte bereziki, orain artean, Cannesko MIPTV Azokako Basque Audiovisual-en erakusmahaietan

Cannes, apirilaren 14a. TF1 frantziar kate publikoak **3Koma**-k ekoiztutako "Urteko Egutegia" ("El Calendario del Año") *reality-lehiaketa* eskuratu du, herrialde horretan eskaintzeko asmoz. Hain zuzen, Cannesko Ikus-entzunezkoen MIPTV Azokan erosi ditu eskubideak. Azoka horixe da munduko garrantzitsuenetakoa bat, eta Euskal Herriko hamaika enpresa ari dira bertan parte hartzen, **Basque Audiovisual**en bitartez. Dagoeneko ETBk eskaini duen "Urteko Egutegia" saioa lehiaketa bat da; bertan, hainbat taldek ahalik eta argazki erakargarrienekin egutegi bat osatzeko lehiaketa jarduten dute.

Saio hau erosi izanak agerian uzten du zer-nolako interesa piztu duen euskal produktuen katalogoak Cannesen dauden enpresa ekoizle eta banatzaileen artean. Beraz, formatuak (**Pausokak** ekoiztutako "Iruzurtia-El Impostor", esaterako) eta dokumental historikoak izan dira, orain artean, **Basque Audiovisual**en erakusmahaietan izandako mundu osoko profesionalek bereziki bilatu dituzten produktuak. Erakusmahai horretan, bestalde, nabarmentzekoa da **Idem**-ek aurkeztutako "Rolanden Kanta" ("La Chanson de Roland") lan historikoa.

Euskal Herriko hamaika enpresak hartu dute parte, hain zuzen, Cannesko Azoka honetan: **3Koma, Baleuko, Canal Euskadi, Expressive Media projects, Idem 4, JSB Multimedia, Mediabask, Pausoka, Retelsat, Silverspace Animation Studios eta Sonora Estudios-ek.** Eiken - Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren ekimenari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari esker, enpresa horiek guztiek aukera izango dute beren produktuak sektoreko eragile nagusiei eskaintzeko; hain justu, apirilaren 16ra arte, egun horretan amaitzen baita Azoka.

"Azoka hau termometro ezin hobea da eduki digital eta ikus-entzunezkoen arloan oraintxe dauden joerak neurtzeko. Oraindik ere sumatzen dira krisialdiaren eraginak; halere, hemen egotea ezinbestekoa da euskal enpresen produktuak aurkeztu ahal izateko", azaldu du Itziar Mena

Eikeneko zuzendariak. Horrenbestez, aurtengo eskarmentuak, aurreko urteetakoarekin batera, argi erakusten digu Eiken - Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Cannesera eramán duten helburua, euskal ikus-entzunezkoen enpresak nazioartekotzekoa eta merkaturatzekoa alegia, benetan arrakastatsua izaten ari dela.

Dokumental historikoez eta formatuez gainera, **Baleukoren** "Animatik" lanak ere interes handia piztu du Basque Audiovisualen erakusmahaian. Animazio software bat da, denbora errealean; eta honi esker, pertsonaia birtualak bere solaskidearekin berehalako elkarreraginean jarduteko aukera izango du.

Nazioarteko hitzordua

MIPTV Azoka urtero-urtero egiten da sasoi inguru honetan, Frantziako Cannes herrian. Aurten, 100 herrialdetik gora bildu dira bertan, hainbat jarduera eskaintzeko asmoz: hitzaldiak, mintegiak, *keynoteak*, koktelak, emanaldiak, prentsaurrekoak eta sari banaketak.

Aurreko urteetan bezalaxe, aurten ere Basque Audiovisualek babesten du Cannesera joandako euskal ordezkariak osoa. Basque Audiovisual, hain zuzen, nazioartean bereziki nabarmendu den Euskal Ikus-entzunezkoen Sektorearen ikur bilakatu da. Eskarmentuak erakutsi digu nazioartera jauzi egiteko plataforma bikaina dela Basque Audiovisual. Eta gainera, hainbat abantaila gehigarri ere eskaintzen ditu; besteak beste, sareko merkataritza katalogo bat (www.basqueaudiovisual.com) eta enpresei laguntza eskaintzeko aholkulari talde bat.

Informazio gehiago behar izanez gero:
MBN Comunicación
Javier Palacios
Tel.: 94 435 63 30